

ZARAUTZ

Zarautz XXI. mendean

Garapen jasangarria lortzeko asmoz, Zarautzek Tokiko Agenda 21 egitasmoari ekin dio aurten

Aurreko mendean asko hazi zen Zarautz: XX. mende hasieran bizpahiru mila lagun bizi ziren herrian, eta gaur hogei mila zarautzar gara. Binanbinan eta eskuak patrikan ibiltzen garenak hainbeste gehitu bagara, herria ere handitu den seinale.

Baina zenbat hazi behar du herriak? Eta nola? Zer moduzko hazkuntza izan da orain artekoa? Alegia, orain modan jarri den terminoa erabiliz, jasangarria al da gure garapena?

Herritarren bizi kalitatea hobetu

Badirudi bidegurutze baten erdian gaudela orain: etxe gehiago eraiki behar ote diren, eraikitzekotan non, lur industrialak gehitzea interesekoa ote den, nekazaritza lurrekin zer egin... Nora goaz eta zeren truke? Lehenbailehen erantzuteko galderak ditugu esku artean. Eta hobe orain erantzun, bihar hasita lan gehiago eta zailagoa izango baitugu.

Agenda 21 Garapen jasangarria lortzea edozein udalerriren helbururik garrantzitsuenetakoa da.



EGUNKARIA

Garapen jasangarriarekin herritarren bizi-kalitatea hobetu nahi da, ekonomia eta ingurugiroa kontuan hartuz.

ko da. Garapen jasangarriarekin herritarren bizi-kalitatea hobetu nahi da, ingurugiroa, alderdi ekonomikoak eta jarra sozialak kontuan hartuz.

Horretarako, Zarautzek Tokiko Agenda 21 egitasmoari ekin dio aurten.

Tokiko Agenda 21ekin garapen jasangarria lortu nahi da,

ingurugiroa errespetatu behar dela kontuan hartuz. Ekimen horrek, noski, herritarren lan-kidetza eskatzen du, bai arazak atzematerakoan, bai eta

hauen irtenbideak bilatzeko orduan ere. Herritarren ekarpenak, iritziak eta iradokizunak izango dira, beraz, egitasmo hori aurrera eramateko oinarri.

Horregatik egin zen Zarautzen lehen parte-hartze foroa, ekain aldean. Parte hartzeko foroaren azterketa horrek etorkizuneko urratsak zehaztu eta aurrerantzean hartu beharreko erabakien oinarriak jarri nahi ditu mahai gainean. Lehenengo parte-hartze foroan Zarautzko hainbat taldeko ordezkariak (politika, kultura, gizartea, ekonomia, kirola...) hartu zuten parte.

Etorkizuneko aukerak eta arriskuak

Horrela, udalerriaren egoeraren diagnostikoa egin zen. Eta diagnostiko horren emaitza iragan urriaren 18an egin zen bileran eman zuten. Batzar horretan, herriaren alderdi ahulak zeintzuk diren azaleratu zen, eta baita alderdi sendoak zein diren ere.

Etorkizunean sor litezkeen aukerak eta arriskuak ere aztertu ziren aipatu bileran. Horrela, udalak herritarren iritziak kontuan hartuz, zarautzarren bizi-tza kalitatea hobetzea helburu izango duen Egitasmoaren helburuak onartu dira. 2001. urtean bide asko jarri zaizkigu aukeran.

Bidegurutzea uzteko, bide egokia zein den jakin behar. Asmatuko ahal dugul!

ORIOGI
GOZOTEGIA OKINDEGIA
Frontoi txokoa
Orio - 943 83 01 89

ALONSO ZERAMIKAK
ERAKUSKETA: Iturbide, 5 - 20810 ORIO
Erreka auzoa, 38 - 20809 AIA - tel./Faxa: 943 13 10 88

CHAPUCETTI
SERIGRAFIA TESTILA
Kamisetak, poloak, metxeroak eta abar.
Zigordia, 52 - Tel.-Faxa: 943 13 05 25
e mail: chapucetti@muger.euskalnet.net
Mugikorra: 652 77 09 01
(Tren geltoki ondoan) • ZARAUTZ

Berislain altzariak
Aulki, neurriko mahai eta bazterreko eserlekutan trebatuak zeure sukalde, taberna edo txokorako.
Erakusketa: Herrikobarra, 1 Tel./ Faxa: 943 13 18 18
Lantegia: Abendaño auzoa, z/g Tel.: 943 13 00 02 ZARAUTZ

PAVITEC 2.000 S.L.
PAVIMENTOS TECNICOS SINTETICOS
AKORDAMENDU INDUSTRIALAK • MORTERO AUTONIBELATZAILEAK
IRRISTAGAITZAK • APAINGARRIAK • INYECTPAVI SISTEMA
Iturbide, 5 - 20810 ORIO - Tel.-Faxa: 943 13 10 88 - E-mail: pavitec@mixmail.com

EGUZKI KAFETEGIA
Goizeko 7.30etatik irekita
Pintxo hotz eta beroak
Ebaki berezia
Nafarroa kalea, 8
943 83 41 16 tel.
ZARAUTZ

ALBOKA
MUSIKA TRESNAREN SALMENTA ETA KONPONKETAK
PIANOEN ALOKAIKUAK
• KITARRAK - AMPLIFIKADOREAK
• TRIKITIXAK - TXISTUAK
• PIANOAK - LIBURUAK
• HAIZEZKO TRESNAK
• GEHIGARRIAK...
Tel./ Faxa: 943 131 567 - Bizkaia kalea, 2 - beheka - 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)

Garrastazu Optika
Osakidetzarekin hitzartuta
SANTA MARINA, 24 • TEL.: 943 13 06 13 • 20800 ZARAUTZ